

koekin bat egiten ez duten liburuak azaltzen dituen gehien debekatuen artean. Ez da kasualitatea.

### Zentsuraren porrota

John Greenen *Looking for Alaska* nobela eta E.L. Jamesen *Fifty Shades of Grey* best seller erotikoren atzetik, Jazz Jenningsek eta Jessica Herthelek idatzitako *I Am Jazz* umeentzako liburua ageri da aurtengo liburu debekatuen zerrendako goi postuetan. Liburuak Jazz Jennings nerabe transgeneroaren bizitza kontatzen du, Jennings beraren ahotan, Herthelekin lankidetzan. Eta AEBetan ezaguna egin den kasu bat azaltzeaz gain –sonatuak izan dira Youtuben eta telebistan Jenningsen testigintzak–, ume transgeneroen errealitatea lehen lerroan jartzea ere lortu du liburuak. Argitalpenak txaloak eta laudorioak jaso zituen hainbat tokitan, eta Wisconsingo eskola batek eskolako irakurgaien artean proposatu zuen, han ikasle transgenero bat zela kontuan hartuta. Erabakiak, ordea, erakunde kristau ebanjelari boteretsu baten makineria aktibatu

### Gazteei bideratutako liburuak izaten dira jomagan, eta eskolan izaten dira zentsura kasu gehienak

zuen, eta, presio bortitzen ostean, liburuaren zabalpena bertan behera uztea erabaki zuen eskolak.

Guraso talde batek, ordea, liburuaren irakurraldi bat antolatu, eta hara gonbidatu zuen Herthel, egileetako bat. Ehunka pertsona bildu ziren ekitaldira, eta txalo zaparradaz jaso zuten idazlea. «Une horretan jakin nuen zentsurak porrot egingo zuela».

Hain justu, hori da ALA erakundeak liburu debekatuen astearekin zabaldu nahi duen mezua. Aniztasunaren alde egin eta zentsuraren kalteez ohartarazi nahi izan dute era guztietako tailer, hitzaldi eta irakurraldien bitartez. Eta nabarmendu dute zentsurazailleek erabilitako argudioak izan ohi direla, hain zuzen, liburu horiek irakurtzeko arrazoi nagusia. Argi dute norbera libre dela irakurri nahi duena irakurtzeko, baina zentsurak zerikusi txikia duela hau tu pertsonalarekin: «Salaketak ez dira pertsona baten ikuspuntua, baizik eta material horiek ezabatzeko ahalagina, hirugarren pertsonen haien irakurketa galarrak. Neurri horretan, adierazpen eta hautaketa askatasunaren aurkakako mehatxuak dira».

# Homo homini zer

Alex Gurrutxaga

**J**oxe Azurmendi pentsalari erreferentea da euskaldunontzat. Maiz gizarte eta kultura gaietan aritu izan bada ere, literatura ere jorratu du, eta nola gainera: Orixeren itzala, errealismo sozialista, Miranderen filosofia, Antonio Arruti, Gandiaga... eta beste hamaikatzogai, modu beti emankorrean jorratuak.

Azken saiakeran aspaldiko gai bati heldu dio; galdera batekin formula dezakegu: zer da gizabere kooperatiboa? *Gizona Abere hutsa da* (1975) testuan jada planteatua utzi zuen dialektika funtsezkoa: gizakia ona dela esaten duen mitoa batetik –basati ona, lagun hurkoa, eta abar–; eta, bestetik, gizakia abere hutsa dela dioen ideologia eta horrek berekin dakarren gizartearen antolakuntza –Darwin, eta abar–: «Nekez esan liteke, besterik gabe gudua naturala denik. Baina norik esan, bake unibertsalaren utopiak gizonaren natura hobeto interpretatzen

duenik, *bellum omnium contra omnes* teoriak baino?». *Gizaberearen bakeak eta gerrak* (1991) liburuan eman zion jarraipena lehendik abiatutako bideari, naturaz, gizarteaz eta indarkezariaz gogoeta eginez.



### 'Gizabere kooperatiboa'

Idazlea: Joxe Azurmendi.  
Argitaratzailea: Jakin.

# Amona

## HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero


**A**zkenaldiko joerarekin bat eginez, errealitatea eta fantasia gurutzatzen jolasten du obra honek, mitologiako pertsonaia gure egunerokoan txertatuz.

Hanpatuta jarriz gero, direnak eta irudimenen baizik ezin litezkeenak era labainkorrean bereizten ditugun puntu hartan, hantxe eduki nahi gaitu obra honek.

Dena dela, liburuaren azalean bertan ikusiko duzue zein den kontaketa mugiarazten duen izaki mitologikoa, hemen aipatuko ez dudana *animalia bitxia*.

Izan, irakurraldi arineko obra da. Hogeita sei kapitulu ditu, ehun eta hirurogeita bost orrial-

de, dena bi atal nagusitan banatuta: lehenen atalean amonaren eskutik abiatzen gara abenturaren kronikan, eta bigarren atalean neskatu protagonista lekuak hartzen du, istorioari azkena eman arte. Esango nuke ongi funtzionatzen duela narratzaileen banaketa honek, amonak *tonua* eta erritmoa jartzen dizkiolako kontaketa, eta neskatuak benetan jokoan dauden



### 'Lehen hegaldia'

Idazlea: Jesus Mari Ojaizola Txiliku.  
Ilustratzailea: Aritz Eiguren.  
Argitaletxea: Elkar.

*Gizabere kooperatiboa* lanean gaiari heldu dio oster, aurreko lanetako erreferentzia nagusiak segi –Darwinekin, bereziki– eta beste batzuk ekarri –Huxley, Dawkins, Kropotkin, eta abar–. Bederatzi atal nagusi dauzka saiakerak, eta hitzaurrea, fabula gisakoa saiakera ixteko, eta 50 orritik gora aipu eta oharrekin. Ez da saiakera erraza, eta Azurmendiren idazkera partikularra da, hala egituraz –antolakuntzan, garapenean, eta abar– nola estiloz –parafraasiatan, elipsisetan, eta abar–, baina irakurketa interesgarria da, eta gogoetarako emankorra.

Gai gakoak ekonomia solidarioa eta kooperatibismoa dira. «Badago, ordea, arazo antropologiko-filosofiko aurretiazko bat gizakiaren berezko izaerari buruz»; alegia, berriz esanda, *homo homini zer?* Azurmendi darwinismoarekin abiatzen da –iraupenerako bizi-borroka, hautespen naturalaren printzipioa, eta abar–, eta oso kritikoa da darwinismo sozialarekin: «Darwinek arraza egoki(tu)enen garaipen eta arraza moldegabean deseginduraren segida bezala burutatzen du giza historia, aberrezko espezieen eboluzioa bezalaxe», eta «sozial-darwinismo-

ak hautespen naturalaren printzipioa indar basa kupidagabearen apologia bihurtzen du».

Gero darwinismoari emandako hainbat erantzun jorratzen ditu. Adibidez, Kropotkin anarkistak, Huxleyri aurka eginez, defendatu zuen Naturan borroka bezain presente dagoela kooperazioa. Erantzun edo bestelako ildo hauen artean Arizmendiarrietarena da saiakerako garrantzitsua, haren kooperatibismoaren jatorrizko izpiritua aldarrikatuz iristen baitu sintesia Azurmendik. Interesgarria da ikustea nola bat egiten duten anarkismoak eta kristautasunak kooperazioaren ideia nagusian. Edonola ere, Azurmendik iradokitzen du litekeena dela, gaur egun, printzipio darwinistak indar handiagoa edukitzea anarkistek edo kristauak aldeztzen saiatzen diren haurridetasunak baino: «gaurko diskurtso 'laikoan' horrelako bertuteentzako leku gutxi dago». Ez da harritzekoa, beraz, Arizmendiarrietaren oinarri filosofiko-moralari begiratu beharra aldarrikatzea.

Esan bezala, saiakera interesgarria eta emankorra da Joxe Azurmendirena. Jakina, irakurlearen jarrera aktiboa eskatzen du.

emozioen barne muinetara ailegatzeko laguntzen digulako.

Zeren liburu hau abentura baten harira jositako obra izanik ere, egiaz horrek ez du deus in porta; benetan in porta duena irakurleari pertsonaien erretratuen bidez helarazten zaiona da.

Horretarako pertsonaien karakterizazioak baliatzen da idazlea, bakoitzari funtzio garbi bat ezarri.

Protagonista, Alaitz, nerabea, abenturazalea eta zalantzia da, arriskuak hartzeko desioa duena, baina murgil egiteko gaithegia izanik, cicerone abil baten premia duena.

Funtzio hori amonak betetzen du.

Amona salbatzailea da, ahalguztiduna, baina aldi berean oso humanoa, kaotikoa, eta gure gizartearen familiako kide hauek duten garrantzi handiagatik, behar den lekura ingota agertzen zaiguna. Amak sasegu falta erakusten du, saiaturia da, baina zorrotzegia ingurukoekin. Azkenean, aita. Iparra galduta dabilen gizajoa dirudi aitak, berez ona omen da, baina bolada txarra pasatzen ari dela dirudi.

Nahiz eta estereotipo maiztuak erabili, irakurraldiak ez du karranka hotsik egiten, nahiko gozo joaten da, herensugearen zainketaren harian –hara!, esan dut sekretua–. Kontaketaren helduleku nagusia amona da. Haren presentziak irakurlea sasegatu egiten du, eta iruditzen zait horixe dela idazlan honen funtzio nagusia: nerabetxo zalantziak helduleku emozionalak eskaintzea. Bestalde, nerabeek gurasoekin izaten dituzten krisiak islatzeko aitaren osasun arazo batez baliatu da, eta asmatu egin duela esango nuke, barne krisiaren erretratuan lokaztea saihestu duelako –arintasan narratiboaren mesederako, bide batez–.

Sekulako txinpartak lortu gabe ere, aldeko ezaugarri mordoxka bat duela iruditu zait, eta guztien artean irakurraldi dinamiko eta atsegina osatzea lortu duela.

Ilustrazioek ere aldeko puntua ematen diotela iruditu zait. Komiki erako eitea dutenez, haur kutsua saihestu dute, baina aldi berean irakurraldiaren mesederako diren lanak txukun konplizten dituzte.